**Espediente zk. / Nº expediente**: 24/2023

**Prozedura / Procedimiento**:

Zigoitiko hondakinen kudeaketa arautzeko ordenantza onartzea

Aprobación de ordenanza reguladora de gestión de residuos de Zigoitia

**Javier Gorbeña García (1, guztira 1)**
Alcaldía
Sinaduraren data: 17/03/2023
HASH: cb036ca3195015866195a5f6737a28db

## KONTSULTA PUBLIKOA, ZIGOITIAN HONDAKINEN BILKETA ETA TRATAMENDUA ARAUTUKO DITUEN ORDENANTZA PRESTATU AURREKOA

Zigoitiko Udalak merkataritza-hondakin ez-arriskutsuen eta Zigoitia udalerrian kalean, etxean, saltokietan eta enpresetan sortutako etxeko hondakinen bilketa eta tratamendua arautzen duen ordenantza prestatzea du xede.

### Konpondu beharreko arazoak

Proiektu honen helburua da sortutako hondakinen gaikako bilketaren, berrerabileraren eta birziklapenaren gehieneko tasara iristea eta, hala, Zigoitiko udalerriko hondakinek ingurumenean eragiten dituzten kalteak gutxitzea.

Hondakinen kudeaketa aurrez aurre dugun erronka handienetako bat da eta, hori dela eta, ingurumenean eragindako inpaktuak murriztuko dituzten irtenbideak bilatu behar ditugu. Beraz, hondakinen arloko edozein politikaren lehen helburuak izan behar du minimora murriztea hondakinen sorrerak eta kudeaketak giza osasunean eta ingurumenean dakartzaten eragin negatiboak.

Hondakinek klima-aldaketan duten eraginari dagokionez, berotegi-efektuko gasen isurien iturri zehaztugabeak dira, nagusiki hondakin biodegradagarriak dituzten zabortegietan isuritako metanoagatik. Nahiz eta berotegi-efektuko gasen isurietan egiten duten ekarpena beste sektore batzuetakoa baino txikiagoa izan –besteak beste, garraioarena edo erregai fosiletatik abiatuta energia sortzearena–, ekarpen hori nabarmen murriztu daiteke, baldin eta, esaterako, hondakin biodegradagarriak zabortegian ez uzteko politikak sustatzen badira.

Gainera, hondakinen kudeaketa jasangarriak beste sektore ekonomiko batzuei laguntzen die haien berotegi-efektuko gasen

## CONSULTA PÚBLICA PREVIA A LA ELABORACIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LA RECOGIDA Y TRATAMIENTO DE RESIDUOS DE ZIGOITIA

El Ayuntamiento de Zigoitia pretende elaborar una ordenanza reguladora de la recogida y tratamiento de los residuos comerciales no peligrosos y de los residuos domésticos generados en las calles, hogares, comercios y empresas del municipio de Zigoitia.

### Problemas a solucionar

El objeto de este proyecto es alcanzar la tasa máxima de recogida selectiva, reutilización y reciclaje de residuos generados, minimizando los daños producidos al medio ambiente por los residuos del municipio de Zigoitia.

La gestión de residuos supone uno de los grandes retos al que nos debemos enfrentar y por ello, debemos buscar soluciones que disminuyan los impactos generados en el medio ambiente. Por tanto, el primer objetivo de cualquier política en materia de residuos debe ser reducir al mínimo los efectos negativos de la generación y gestión de los residuos en la salud humana y el medio ambiente.

Por lo que se refiere a la incidencia de los residuos en el cambio climático, éstos suponen una fuente difusa de emisión de gases de efecto invernadero, principalmente debido al metano emitido en vertederos que contienen residuos biodegradables. Si bien su contribución a las emisiones de gases de efecto invernadero es inferior a la de otros sectores como el transporte o la generación energética a partir de combustibles fósiles, esta se puede reducir de forma significativa promoviendo, por ejemplo, políticas que eviten el depósito de residuos biodegradables en vertedero.

Adicionalmente, la gestión sostenible de residuos ayuda a otros sectores económicos a reducir sus emisiones de gases de efecto

Baliozkotze Kod.: 72FS274KEKR5G577CJJNNTPJL
Egiaztapena: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 4

eta beste kutsagarri atmosferiko batzuen isuria murrizten.

Bestalde, hondakinak zuzen kudeatzen badira, ez dute itsas ingurunean edo balio handiko beste habitat edo ekosistema natural batzuetan amaituko, eta horrek eragin positiboa izango du habitatak, ekosistemak eta, azken batean, biodibertsitate osoa babesteko eta kontserbatzeko estrategietan sartzen diren helburuak betetzeko.

Termino kuantitatiboetan, 2021 ekitaldirako AFAren Hondakinen Behatokiaren Txostenean argitaratutako datuen arabera, Arabako Lurralde Historikoan sortutako hondakin guztietatik, % 36 gaika batzen da eta gainerako % 64a, masan, inolako gaikako bilketarik edo sorburuko bereizketarik gabe. Zigoitiari dagokionez, gaikako bilketa % 44koa da, eta masako bilketa (sorburuko bereizketarik gabe), % 56koa.

Alderdi horretan administrazio eskudunek, udalek, zehazki, hondakinen sorrera murrizteari buruzko datuak ezarri eta sustatu behar dituzte, bai eta sorburuan gaika biltzeari buruzko datuak hobetzeko neurri eta sistemak ere; horretarako, kasu bakoitzean, neurri eta/edo bilketa-sistema eraginkorrenak sustatu beharko dituzte. Horretarako, ezinbestean eskaini behar zaio arreta berezia biohondakinen frakzioari; izan ere, oro har, errefusan biltzen denaren % 47 inguru da eta, beraz, frakzio horretan dago hobekuntza-marjinarik handiena.

Zigoitian, bai eta Arabako landa-inguruneko beste udalerri askotan ere, biohondakinak biltzeko eta/edo tratatzeko sistemen zenbait aukera aztertu eta ikertu ondoren, kudeaketa-eredu deszentralizatu baten aldeko apustua egin da eta, horretarako, etxeko eta erkidegoko konpostatzea sustatzen da. Ingurumenaren ikuspegitik, nabarmena da inpaktu gutxien eragiten duen kudeaketa-bidea dela; izan ere, instalazio handietako tratamenduak eta garraioa saihesten dira. Era berean, termino ekonomikoetan ere aukerarik bideragarriena dela uste da.

**Onesteko beharra eta aukera**

invernadero y de otros contaminantes atmosféricos.

Por otra parte, la correcta gestión de los residuos evita que estos acaben en el medio marino u otros hábitats o ecosistemas naturales de gran valor, lo que contribuye positivamente a la consecución de los objetivos enmarcados en las estrategias para la protección y la conservación hábitats, ecosistemas y, en definitiva, la totalidad de la biodiversidad.

En términos cuantitativos, según los datos publicados en el Informe del Observatorio de Residuos de la DFA para el ejercicio 2021, de la totalidad de residuos generados en el Territorio Histórico de Álava, se recoge de manera selectiva un 36%, lo que supone que el 64% restante se recoge en masa, sin ningún tipo de recogida selectiva o separación en origen. En cuanto a Zigoitia, la recogida selectiva es de un 44%, y la recogida en masa (sin separación en origen) supone un 56%.

Es precisamente en este aspecto en el que las administraciones competentes, los ayuntamientos, deben establecer y fomentar medidas y sistemas para mejorar los datos tanto de reducción de la generación de residuos, como de recogidas selectivas en origen, impulsando para ello las medidas y/o sistemas de recogida que resulten más eficaces en cada uno de los casos. Para ello resulta imprescindible prestar especial atención a la fracción de los biorresiduos, ya que en líneas generales, ésta supone aproximadamente un 47% de lo que se recoge en la fracción resto y por tanto, es en esta fracción donde existe un mayor margen de mejora.

En Zigoitia, así como en otros muchos municipios del medio rural alavés, tras analizar y estudiar diferentes alternativas en cuanto a los sistemas de recogida y/o tratamiento de los biorresiduos, se apuesta por un modelo de gestión descentralizado, impulsando para ello el compostaje doméstico y comunitario. Desde un punto de vista medio ambiental es evidente que es la vía de gestión que menor impacto genera, evitando transporte y tratamientos en grandes plantas, y también en términos económicos, se considera la alternativa más viable.

**Necesidad y oportunidad de**

Baliozkotze Kod.: 72FS274KEKR5G577CJJNNTPJL
Egiaztapena: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 4

aprobación

Egungo araudi-esparruari dagokionez, *Ekonomia Zirkularrerako Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legea (apirilaren 8ko 7/2022 Legea)* onetsi eta indarrean sartu zela nabarmendu behar da. Lege-esparru berri horrek hondakinen kudeaketaren arloan ezarri beharreko lehentasun eta printzipioak ezartzen ditu, baina baita asmo handiko helburu batzuk ere, hondakinen murrizketari eta prebentzioari eta benetako ekonomia zirkularra bultzatzeko estrategien sustapenari dagokienez. Lege horrek hondakinen hierarkiaren printzipioa aplikatzea nabarmentzen du, jasangarritasun handiagoa lortzeko eta eredu ekonomiko zirkularrak ezartzeko neurri gisa.

En cuanto al marco normativo actual, cabe destacar la aprobación y entrada en vigor de la *Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular*. Este nuevo marco legal marca las prioridades y principios que se deben establecer en materia de gestión de residuos, pero también establece una serie de objetivos muy ambiciosos en cuanto a la reducción y prevención de residuos y promoción de estrategias para fomentar una economía circular real. Esta Ley también hace especial hincapié en la aplicación del principio de jerarquía de residuos como medida para contribuir a una mayor sostenibilidad, así como a la implantación de modelos económicos circulares.

Araudi-esparru berri horrek ezartzen dituen helburu nabarmenen artean, hondakin-frakzio guztietarako gaikako bilketarako bide eta sistema eraginkorrak ezartzeko derrigortasuna ezartzen da, eta, 2025erako, udal-hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzeko % 55era iritsi beharko da, pisuan, % 30era 2030erako eta % 65era 2035erako.

Entre los objetivos más destacables marcados por este nuevo marco normativo se establece la obligatoriedad de establecer vías y sistemas de recogida selectiva efectivos para todas las fracciones de residuos, debiendo llegar a un 55% en peso de preparación para la reutilización y el reciclado de residuos municipales para 2025, un 60% para 2030 y un 65% para el año 2035.

**Arauaren helburuak:**

Aurretik azaldutako guztia dela eta, hondakinen kudeaketa arautuko duen udal-ordenantza bat idatzi behar da, ezarritako legezko helburuak betetzen laguntzeko eta, toki-mailan, jasangarritasuna hobetzeko.

**Objetivos de la norma:**

Por todo ello lo explicado anteriormente, se hace necesaria la redacción de una ordenanza municipal reguladora de la gestión de residuos con el objetivo de contribuir al cumplimiento tanto de los objetivos legales establecidos, como de mejorar la sostenibilidad a nivel local.

**Herritarren iritzia batzeko epea irekitzea:**

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 133.1 artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz, hiri-hondakinen bilketa eta tratamendua arautzeko ordenantza prestatu aurretik, herritarrek honako gai hauei buruz duten iritzia jasotzeko epea irekiko da:

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
b) Ordenantza onesteko beharra eta aukera.
c) Arauaren helburuak.
d) Egon daitezkeen irtenbide alternatibo

**Apertura de plazo para recabar la opinión de la ciudadanía:**

De conformidad con lo previsto en el artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, con carácter previo a la elaboración de la ordenanza reguladora de la recogida y tratamiento de residuos urbanos, se abre un plazo para recabar la opinión de la ciudadanía acerca de:

a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.
c) Los objetivos de la norma.
d) Las posibles soluciones alternativas

Baliozkotze Kod.: 72FS274KEKR5G577CJJNNTPJL
Egiaztapena: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 4

erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak

Herritarrek, erakundeek eta elkarteek proposatutako alderdiei buruzko iritziak helarazi ahalko dituzte, hala nahi badute, 2023KO APIRILAREN 27RA ARTE. Horretarako, iritziak honako bide hauen bidez aurkeztu beharko dituzte:

- Udalaren egoitza elektronikoa: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/info.0
- aurrez aurre, udaletxean, arreta emateko ordutegian: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara (pertsona fisikoak).
- Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 16. artikuluan aipatzen diren lekuetako edozeinetan.

regulatorias y no regulatorias.

La ciudadanía, organizaciones y asociaciones que así lo consideren pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados HASTA EL DÍA 27 DE ABRIL DE 2023 mediante su presentación a través de:

- La sede electrónica del ayuntamiento: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/info.0
- presencialmente en la casa consistorial en horario de atención de lunes a viernes de 9:00 a 14:00 horas (las personas físicas)
- en cualquiera de los lugares indicados en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA**

**DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

Baliozkotze Kod.: 72FS274KEKR5G577CJJNNTPJL
Egiaztapena: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 4